

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

SANTA CRUZ DEL FIERROKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Lizitazioa, Arabako Foru Aldundiaren eta Santa Cruz del Fierroko Administrazio Batzarraren artean "Cava de los Pozos" dermioan partzuergoan duten mendian (katalogatu gabeko mendia – 230 zenbakikoa) dagoen zur aprobetxamenduko 1/16 lotea esleitzeko, prozedura irekiaren bidez eta esleipenerako irizpide bakararekin (prezioa alegia)

1. Erakunde esleitzaila.

a) Erakundea: Santa Cruz del Fierroko Administrazio Batzarra.

2. Kontratuaren xedea.

a) Xedearen azalpena: besterentzea Arabako Foru Aldundiaren eta Santa Cruz del Fierroko Administrazio Batzarraren artean "Cava de los Pozos" dermioan partzuergoan duten mendian (katalogatu gabeko mendia – 230 zenbakikoa) dagoen zur aprobetxamenduko 1/16 lotea.

b) Gauzatzeko lekua: Santa Cruz del Fierroko Administrazio Batzarra (Berantevilla udalerrria).

c) Gauzatzeko epea: 2016ko abenduaren 30era arte.

d) Luzapena: ikusi agiriak.

3. Izapidetzea, prozedura eta esleitzeko irizpidea.

a) Izapidetzea: arrunta.

b) Prozedura: irekia.

c) Esleitzeko irizpidea: bakarra, preziorik altuena.

4. Gutxieneko lizitazio oinarria: 14.750,00 euro (BEZa aparte).

5. Bermeak.

Behin-behinekora: ez da eskatzen.

Behin betikoa: esleipen zenbatekoaren ehuneko 5 (BEZa aparte).

6. Dokumentazioa eta argibideak eskuratzea.

a) Berantevillako Udala: Idazkaritza.

b) Helbidea: Mayor, 11 – 01211 Berantevilla.

c) Telefonoa: 945 337 059. Faxa: 945 337 181.

Agiriak eta argibideak eskuratzeko azken eguna: 15 egun natural, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera.

7. Eskaintzak edo parte hartzeko eskaerak aurkeztea

a) Eskaintzak aurkezteko azken eguna: 30 egun natural, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera (egun hura barne).

b) Aurkeztu beharreko agiriak: baldintza ekonomiko-administratiboaren agiriaren 9. klausulan adierazten direnak.

c) Lizitatuzaileak eskaintzari eutsi behar dion epea: hiru hilabete, eskaintzak irekitzen direnetik aurrera.

d) Aldaerak onartzea: ez.

e) Aurkezteko lekua: sarrera erregistroa.

1. Erakundea: Berantevillako Udala.

2. Bulegoa: Berantevillako udaletxea.

3. Helbidea: Mayor, 11 – 01211 Berantevilla.

8. Eskaintzak irekitzea:

Aurkeztutako eskaintza ekonomikoak (“B” gutun-azala) jendaurreko ekitaldi batean irekiko dira, kontratatzailearen profilean adierazten diren lekuan, egunean eta orduan.

9. Iragarkien gastuak.

Esleipendunak ordainduko ditu.

Santa Cruz del Fierro, 2016ko ekainaren 10a

Lehendakaria

MIGUEL ANGEL SAMANIEGO OCIO